Euri-urak modu berezian hustuko dira; hau da, ez dute kontakturik izango gainerako hondakin-urekin, edota satsekin. Horretarako, eraikinetako teilatuak euri-ura biltzeko erretenez eta zorrotenez hornituta egongo dira, eta ur horiek ingurune naturalera bideratuko dira.

Parasitoen kontrako baniuak egiten badira, horietako hondakin-likidoak era berezian jaso eta kudeatuko ditu hondakin arriskutsuak kudeatzen dituen enpresa behar bezala baimendutako batek.

Substantzia arriskutsuen biltegitratzea eta manipulazioa (gasolio-bidoiak, desinfektatzaileak, arratoi-pozoiak, usainik gabeko intsektizidak, etab.) haien arteko balizko bateraezintasuna kontuan hartuta egingo da, eta euri-urarekin kontakturik ez izateko moduan. Zoladura iragazgaitz, erresistente eta aldaezinean biltegitratuko dira, eta isuriak atxikitze sistema bat izango dute.

Ustekabeko isuria gertatuz gero, berehala hustuko dira atxikitze kubetoak, eta isuritako likidoa leku egokian biltegitratuko da berriro.

Haizearen, uholdeen, euriaren edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.

Abereentzako elikagaien biltegitratzearen diseinuak lixibiatuak kanporatzea saihestuko du. Horretarako, biltegitratuko espazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Iragazgaitzak izan beharko dute, eta estankotasun-egoera ezin hobean mantendu beharko dira.
- Gutxieneko malda bat izan beharko dute, siloko fluidoak ez gelditzeko eta azkar hustu ahal izateko.

diciembre, por el que se regulan las instalaciones para actividades potencialmente contaminadoras de la atmósfera.

Las soleras de los establos (cuadra nueva y bordada animal) serán impermeables. Se diseñarán de forma que no haya derrames al exterior.

Las aguas pluviales se vaciarán de forma separada, es decir, no tendrán contacto con el resto de aguas residuales, ni con sats. Para ello, los tejados de los edificios estarán dotados de canalones y bajantes para recoger el agua de lluvia, que se dirigirán al medio natural.

En el caso de que se realicen baños antiparasitarios, los líquidos residuales de los mismos serán recogidos y gestionados de forma separada por una empresa gestora de residuos peligrosos debidamente autorizada.

El almacenamiento y manipulación de las sustancias peligrosas (bidones de gasóleo, desinfectantes, raticidas, insecticidas sin olor, etc.) se realizará teniendo en cuenta la posible incompatibilidad entre ellas y de forma que no se pueda entrar en contacto con el agua de lluvia. Se almacenarán en pavimento impermeable, resistente e inalterable y contarán con un sistema de retención de derrames.

En caso de derrame accidental, los cubetos de retención se vaciarán inmediatamente y el líquido vertido se volverá a almacenar en el lugar adecuado.

Se adoptarán las medidas necesarias para evitar el arrastre o vertido de productos fuera del depósito como consecuencia del viento, inundaciones, lluvia o tránsito de vehículos.

El diseño del almacenamiento de alimentos para el ganado evitará la eliminación de lixivados. Para ello, los espacios destinados al almacén deberán cumplir las siguientes condiciones:

- Deberán ser impermeables y mantenerse en perfecto estado de estanqueidad.
- Deberán tener una pendiente mínima para que los fluidos del silo no se detengan y puedan vaciarse rápidamente.

ESKU674bf32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374



Urnieta
udala

Espte zk n° expte:
2023ITGB0011

- Hormak iragazgaitzak izango dira metro bateko altueraraino.

Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari dagokionean, jarduerak Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea beteko du, udal-araudiaren kalterik gabe.

Ahalik eta hondakin gutxien sortuko da, eta apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako hierarkia aplikatuko da, ondorengo lehentasun-ordena honetan: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena, beste balorizazio mota, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran ezabatuko dira.

Espreki debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan. Hondakinak jatorrian banatuko dira eta, horretarako, hondakinak jasotzeko eta biltegitzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.

Hildako abereen bilketa Euskal Autonomia Erkidegoan Gizakiek Jateko Ez diren Animalia-Jatorriko Azpiproduktuen arloko Eginkizunak Antolatzeari eta Banatzeari buruzko, apirilaren 24ko, 60/2012 Dekretuak ezarritakoa jarraituz burutuko da.

Abere-deiekzioen kudeaketa eragozpenak murriztuz burutuko da, betiere Abeltzaintzako Ustiatzietako Arau Teknikoak, Higieniko-Sanitarioak eta Ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren arabera, eta Nekazaritzako Nitrato-Kutsadura Jasateko Arriskupeko Gunetzat jo Ez diren EAeko gunetarako Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartzen duen ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuaren arabera.

Ganadua bizi den instalazioetatik bereizitako simaurtegi estalia egon beharko da, hiru hilabetetan sortutako simaurra biltzeko adinako bolumena izango duena, gutxienez. Sastegiaren zorua iragazgaitza izango da, eta likidoak irristatu ahal izateko besteko aldapa izango du. Likidoak biltze-hobira bideratuko dira.

- Las paredes serán impermeables hasta un metro de altura.

En materia de prevención y gestión de residuos, la actividad se ajustará a la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos para la economía circular y suelos contaminados, sin perjuicio de la normativa municipal.

Se minimizará la generación de residuos y se aplicará la jerarquía establecida en el artículo 8 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, en el siguiente orden de prioridad: prevención, preparación para la reutilización, reciclaje, otro tipo de valorización, incluida la valorización energética. Cuando por razones técnicas o económicas no puedan aplicarse dichos procedimientos, se eliminarán de forma que se eviten o se reduzcan al mínimo los efectos sobre el medio ambiente.

Queda expresamente prohibida la mezcla de las diferentes tipologías de residuos generados, tanto peligrosos como no peligrosos. Los residuos se distribuirán en origen, para lo cual deberán disponerse de los medios adecuados para su recogida y almacenamiento.

La recogida de animales sacrificados se realizará de acuerdo con lo establecido en el Decreto 60/2012, de 24 de abril, de Ordenación y Distribución de Funciones en materia de Subproductos Animales de Origen No Humano en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La gestión de las llamadas ganaderas se realizará reduciendo los inconvenientes, de acuerdo con el Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas, y el Decreto 112/2011, de 7 de junio, por el que se aprueba el Código de Buenas Prácticas Agrarias para las zonas de la CAPV no declaradas Zonas Vulnerables a la Contaminación por Nitratos Agrícolas.

Deberá existir estercolero recubierto separado de las instalaciones donde habite el ganado, con un volumen mínimo de almacenamiento suficiente para el estiércol generado en tres meses. El suelo del asador será impermeable con pendiente suficiente para permitir el deslizamiento de líquidos. Estos líquidos serán

ESKU674bf32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0011

Ongarrien aplikazioa ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuak onartutako Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodean ezarritako irizpideak segiz burutuko da. Ongarritzeko nahikoa nekazaritza lur egongo da: ongarrirako den lurzati bakoitzean hektarea bateko azalera, gutxienez, 3,5 a.u.n.l.u.-ko (azienda-unitateak nekazaritzako lurak ureztatzeari begira); eta errespetatuko dira, gainera, lurraldeko elementuekiko gutxieneko distantziak.

Simaurraren maneuari buruzko informazioa ustiategiaren koadernoan jaso beharko da, EAEko Nekazaritza-Ustiategiaren Koaderno eta beraren Erabilera arautzen dituen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko azaroaren 18ko Aginduak ezarri moduan. Hala, koadernoan islatu beharko da ongarrizteen erregistro jarraitua, ondorengo datu hauek jasoko dituen: ongarrizte data, ongarritutako eremua, eta kantitatea hektareako, besteak beste. Garraiatzailea hirugarren bat baldin bada, edo simaurra beste ustiapen batzuetara eramaten bada, horien datuak ere jaso beharko dira.

Izaeran eta osaeran hiri-hondakinekin bateragarriak diren hondakinak (kartoia, zakuak, plastikoak, papera, etab.), baita nekazaritza-jatorriko hondakin plastikoak ere (siloratzeko rotopaketatik, pentsu-ontzietatik eta abarretatik datozenak), hondakinak biltzeko erakundeek emango zaizkie, Ekonomia Zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearekin bat etorritik, tokiko araudian ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Hondakin sanitario arriskutsuak (sendagai hondarrak, zorrotzak, ebakitzailak...), makinetako eta instalazioetako olioien hondakinak (traktorea, konpresoreak purgatzeko urak, etab.), gasleo-bidoiak, hodi fluoreszenteak eta, orokorrean, arriskutsutzat jotzen diren (substanzien eta nahasteen) hondakinak, baita horiek gorde dituzten ontziak zein horiekin kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak ere, hondakin arriskutsuei dagozkien baldintzak betez jasoko dira; hau da, Ekonomia Zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko

conducidos a la fosa de recogida.

La aplicación de los abonos se realizará siguiendo los criterios establecidos en el Código de Buenas Prácticas Agrarias aprobado por el Decreto 112/2011, de 7 de junio. Se dispondrá de suelo agrícola suficiente para fertilizar, con una superficie mínima de 3,5 a.u.n.l.u. (unidades de ganado para riego de tierras agrícolas) en cada una de las parcelas a fertilizar, respetándose además las distancias mínimas respecto a los elementos del territorio.

La información sobre el manejo del estiércol deberá recogerse en el cuaderno de explotación, tal y como establece la Orden de 18 de noviembre de 2014, de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad, por la que se regula el Cuaderno de Explotaciones Agrarias de la CAPV y su uso. Así, en el cuaderno deberá reflejarse un registro continuo de abonos que recoja la fecha de fertilización, la zona abonada y la cantidad por hectárea, entre otros datos. En el caso de que el transportador sea un tercero o el estiércol se traslade a otras explotaciones, se incluirán los datos de las mismas.

Los residuos compatibles con residuos urbanos en su naturaleza y composición (cartón, sacos, plásticos, papel, etc.), así como los residuos plásticos de origen agrícola (procedentes de rotopacas de ensilado, envases de pienso, etc.), serán entregados a organismos de recogida de residuos, de acuerdo con la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos para la economía circular y suelos contaminados, sin perjuicio de lo establecido en la normativa local.

Los residuos sanitarios peligrosos (restos de medicamentos, punzantes, cortantes...), residuos de aceites de máquinas e instalaciones (tractor, aguas de purgas de compresores, etc.), bidones de gasóleo, tubos fluorescentes y, en general, los residuos considerados peligrosos (sustancias y mezclas), así como los envases que los hayan almacenado y los filtros, absorbentes, trapos y algodones contaminados con ellos, serán recepcionados cumpliendo las condiciones correspondientes a los residuos peligrosos, es decir, en cumplimiento de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos de economía

ESKU674bf32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0011

apirilaren 8ko 7/2022 Legea betez, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretua betez, eta, oro har, hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa betez.

Hondakin arriskutsuak biltegitatuta dauden denboran behar bezala etiketatuta egongo dira, teilatupean eta zoru iragazgaitzaren gainean, eta isurketa akzidentalak atxikitzeko sistema egongo da.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 35. artikuluan ezarritakoa betez, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik gabe, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan hondakinen sortzaile aurrekomunikazioa aurkeztu beharko da (hondakin arriskutsuen ekoizle txikien atalean) jarduera abian jarri aurretik. Komunikazio horren edukia 7/2022 Legearen XI eranskinean aipatutakoa izango da.

Era berean, jarduera uztean, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, jakinarazpenari baja emateko hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroan.

Garbiketa, konponketa eta instalazioen bestelako mantentze lanak, hondakinen, isurketen edo emisioen sorrera murrizteko eran burutuko dira.

Instalazio, tresna eta ekipoak aldizka garbituko dira. Behar den guztietan desinfektatu, intsektugabetu eta arratoigabetuko dira ustiatetik instalazioak.

Garbitzeko lanetan ez da baldintza higieniko-sanitario egokiak bermatzeko beharrezkoa den baino ur gehiago erabiliko. Produktu desinfektatzaileak erabiltzekotan, horiek, posible den heinean, biodegradagarriak izango dira.

Ustiatetik, al baitariak ikuskatuta, espeziearen gaixotasun nagusien kontrako programa sanitarioa landuko du, eta indarrean dauden arau sanitarioak beteko ditu.

Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.

circular y suelos contaminados, del Real Decreto 110/2015, de residuos de aparatos eléctricos y electrónicos y, en general, de acuerdo con lo establecido en la normativa sobre residuos peligrosos.

Los residuos peligrosos deberán estar debidamente etiquetados, bajo cubierta y sobre suelo impermeable, durante el tiempo de almacenamiento, existiendo un sistema de retención de vertidos accidentales.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 35 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, y sin perjuicio de lo establecido en el resto de la normativa de carácter sectorial, se deberá presentar ante la Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental una comunicación previa a la puesta en marcha de la actividad de generación de residuos (en el apartado de pequeños productores de residuos peligrosos). El contenido de esta comunicación será el indicado en el Anexo XI de la Ley 7/2022.

Asimismo, al cesar la actividad deberá presentarse una declaración responsable dando de baja la notificación en el registro de producción y gestión de residuos.

La limpieza, reparación y otros trabajos de mantenimiento de las instalaciones se realizarán de forma que se reduzca la generación de residuos, vertidos o emisiones.

Las instalaciones, aparatos y equipos se limpiarán periódicamente. Las instalaciones de la explotación se desinfectarán, desinsectarán y desratizarán siempre que sea necesario.

En las labores de limpieza no se utilizará más agua de la necesaria para garantizar unas condiciones higiénico-sanitarias adecuadas. Si se utilizan productos desinfectantes, éstos serán, en la medida de lo posible, biodegradables.

La explotación, bajo inspección veterinaria, elaborará un programa sanitario contra las principales enfermedades de la especie, cumpliendo las normas sanitarias vigentes.

Las medidas contra incendios se ajustarán a lo que establezca el organismo competente.

ESKU674bf32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0011

Lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udalari eta EAeko ingurumen-organoari, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2. artikulua adierazitakoaren arabera.

Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.

Jardueraren ingurumen-jardunaren etengabeko hobekuntza sustatuko da, apurka-apurka eta mailaz maila zenbait tresna ezarriz, hala nola Europako Erkidegoko Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema (EMAS), Europar Batasuneko etiketa ekologikoaren sistema, ingurumen-aztarnaren kalkulua edo produktuaren eta prozesuaren ekoberrikuntza. Horiek guztiak borondatez aplikatzekoak dira, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean jasota daude, ingurumen-hobekuntza bultzatzeko tresna gisa.

Proiektuan jasotzen diren zehaztapenak eta neurri babesleak zein zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, betiere txosten honetan jasotako neurrien aurka ez doazenean.

Txosten honetan ezarritako neurri babesleak eta zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira.

Jardueraren titularrak udalari eman beharko dio ingurumenean eragina izan dezaketen ondorioak ekarriko dituen zeinahi aldaketaren berri, baldin eta horrek eragina baldin badu jardueraren ezaugarrietan, ekoizpen-prozesuetan, funtzionamenduan edo hedapenean. Aldaketa hori funtsezkoa bada jarduerak baimen berria beharko du.

Txosten honek eta honen ondoren udalak sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela, jarduera martxan dagoen bitartean, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko du indarrean sartzekoan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

UDAL BALDINTZAK OROKORRAK

En caso de detectarse indicios de que el suelo se encuentra contaminado, se deberá informar inmediatamente al Ayuntamiento y al órgano ambiental de la CAPV, tal y como señala el artículo 22.2 de la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

El titular deberá informar inmediatamente a la Administración en caso de accidente o incidente que pueda contaminar el medio exterior.

Se promoverá la mejora continua del desempeño ambiental de la actividad mediante la implantación progresiva y gradual de instrumentos como el Sistema Comunitario de Gestión y Supervisión Ambiental (EMAS), el sistema de etiqueta ecológica de la Unión Europea, el cálculo de la huella ambiental o la ecoinnovación del producto y del proceso. Todas ellas de aplicación voluntaria y recogidas en la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, como instrumento de impulso a la mejora ambiental.

Las determinaciones y medidas protectoras y correctoras contenidas en el proyecto serán de obligado cumplimiento, siempre que no se opongan a las recogidas en el presente informe.

Las medidas protectoras y correctoras establecidas en este informe se refieren al proyecto presentado.

El titular de la actividad deberá comunicar al ayuntamiento cualquier modificación que afecte a las características de la actividad, a los procesos productivos, a su funcionamiento o a su difusión, y que pueda tener efectos significativos sobre el medio ambiente. Si esta modificación es sustancial la actividad requerirá nueva autorización.

El presente informe y la posterior concesión por parte del Ayuntamiento de la licencia de actividad clasificada no pone fin a las obligaciones ambientales que el promotor debe tener en cuenta. De esta forma, mientras la actividad se encuentre en funcionamiento, la actividad inicialmente autorizada deberá adaptarse a la nueva normativa que, de forma gratuita, entra en vigor y que le es de aplicación.

CONDICIONES MUNICIPALES GENERALES

ESKU674bf32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0011

ZARATA

Egoitzazko hiri-lurzoruan hurbilen dauden etxebizitzetan 8etatik eta 22etatik aurrera zarata ezin izango da 40 eta 30 dB(A) baino handiagoa izan, hurrenez hurren, Leq. 60 segundoko zarata-maila baliokidean, ezta 45 eta 35 dB(A) gehienezko balioetan. Era berean, ondoko jardueretan ezingo dira 60 dB(A)-ak gainditu.

Inguruko pabiloi edo lokalen egiturei bibrazioak transmititzea eragozteko, beharrezkoa den makinetan, dagozkien bibrazioen kontrako elementuak jarriko dira.

AIREZTAPENA

Jardueraren aireztapena ingurukoak molestatu gabe egingo da.

HONDAKIN SOLIDOAK

Bere jardueraren ondorioz sortutako hondakinak kudeatu beharko ditu, eta enpresa batekin kontratua egingo du, kontrolatutako zabortegira erretiratzea bermatuko duena, beharrezkoa izanez gero.

Hiri-hondakinak eta asimilagarriak apirilaren 8ko, 7/2022 Legeak, hondakinen oinarritzko legea, xedatutakoa betez kenduko dira eta bestela, indarrean dauden Udal ordenantzek xedatutakoa betez.

Hondakinak erretzea debekatuta dago.

Hondakin metalikoak estalitako gune batean edo edukiontzi iragazgaitzean metatuko dira birziklatu ahal izateko.

SUTEEN KONTRAKO NEURRIAK

Gutxienez ondorengo elementuak jarriko dira:

Koadro elektriko orokorraren ondoan 5 kg-ko CO₂-ko su-itxalgailu bat.

Su-itxalgailu eramangarriak, eremu babestuen edozein puntutatik gehienez ere 25 m-ra iritsi arte egin beharreko distantzia, 25 m baino handiagoa ez bada; mota eta efikazia, aurreikus daitekeen suaren eta babestutako azaleraren arabera hautatuko dira.

Era berean, beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dutena beteko da, eta, gutxienez, proiektuan jasotakoa.

RUIDO

No se sobrepasarán los 40 y 30 dB(A) a partir de las 8 y 22 horas respectivamente en las viviendas más próximas de suelo urbano residencial en nivel continuo equivalente Leq. En 60 seg. Ni los 45 y 35 dB(A) en valores máximos. Así mismo no se sobrepasarán los 60 dB(A) en las actividades contiguas.

Con objeto de evitar la transmisión de vibraciones a la estructura de las naves o locales próximos, en aquella maquinaria que lo precise, se dotará de elementos antivibratorios adecuados.

VENTILACIÓN

La ventilación de la actividad se realizará sin producir molestias a los colindantes.

RESIDUOS SÓLIDOS

Deberá gestionar los residuos producidos por su actividad, aportando el contrato con una empresa que asegure y garantice su retirada a vertedero controlado, si fuese necesario.

Los residuos sólidos urbanos y asimilables se retirarán con lo establecido en la Ley 7/2022 de 8 de abril, sobre Residuos y en su caso en las ordenanzas municipales vigentes.

Se prohíbe la quema de residuos.

Los residuos metálicos se almacenarán en lugar cubierto o contenedores estancos previa su retirada para su reciclado.

MEDIDAS CONTRA INCENDIOS

Como mínimo se instalarán los siguientes elementos:

Un extintor de CO₂ de 5 Kg. junto al cuadro general eléctrico.

Extintores portátiles de modo que la distancia a recorrer horizontalmente desde cualquier punto del área protegida hasta alcanzar el extintor más próximo no exceda de 25 m; el tipo y la eficacia se elegirán en función del fuego previsible y la superficie protegida.

Así mismo, se cumplirá lo exigido por otros organismos competentes, y mínimamente lo reflejado en el proyecto.

ESKU674bf32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374



Urnietako
udala

Espte zk n° expte:
2023ITGB0011

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Obra baimena aparte izapidetuko da.

Jarduera hasi aurretik ondorengoak aurkeztu beharko dira Udalean:

- Titularrak jarduera hasi dela jakinaraztea, bere erantzukizunpean instalazioa onartutako proiektuarekin bat datorrela adieraziz, bai eta ezarritako neurri zuzentzaile gehigarriekin eta ezarritako baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoarekin bat datorrela adieraziz ere. Komunikazioarekin batera, teknikari eskudunek sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, instalazioak onartutako proiektuarekin bat datozela eta jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko.

Hirugarrena:

Kontu-hartzailletza zerbitzuak dagokion zerga likida dezala, hala badagokio.

7.-Bestelakoak.

Euken Garmendia (EH-BILDU):

Azaroak 30eko Osoko Bilkura, azaroak 28ra aurreratzea proposatzen du, azaroak 30ean greba orokorra (greba feminista) deitua dagoelako.

PSEko zinegotzia den Hermenegildo Gonzálezek idazkariari galdetzen dio ia horrelako erabakiak Gobernu Batzordean hartu daitezken.

Idazkariak erantzuten dio, bertan udal alderdi politikoko guztiak ordezkatuak daudenez, posible dela honen inguruan adostea.

Ondorioz, udalkide guztiak erabakitzen dute hurrengo ohiko Osoko Bilkura azaroaren 28ra aurreratzea.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, Alkateak bilkura bukatutzat eman du zortziak eta hamarretan. Horri buruzko akta hau egin da, eta nik, Urnietako Udaleko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Jorge Segurado Iriondo, Alkatea / Alcalde.

CONDICIONES PARTICULARES

La licencia de obra se tramitará aparte.

Antes del inicio de la actividad, se deberá presentar en el Ayuntamiento:

- Comunicación de inicio de actividad por parte de la persona titular en la que bajo su responsabilidad manifieste que la instalación se ajusta al proyecto aprobado, así como a las medidas correctoras adicionales impuestas y su compromiso para mantener el cumplimiento de las condiciones impuestas. La comunicación deberá acompañarse de un certificado suscrito por personal técnico competente, que acredite que las instalaciones se ajustan al proyecto aprobado y que se ha cumplido el condicionado fijado en la licencia de actividad clasificada.

Tercero:

Que, por los servicios de Intervención, en su caso, se proceda a la liquidación del tributo que corresponda.

7.-Otros.

Euken Garmendia (EH-BILDU):

Propone adelantar el Pleno del 30 de noviembre al 28 de noviembre porque el 30 de noviembre está convocada una huelga general (huelga feminista).

Hermenegildo González, concejal del PSE, pregunta a la secretaria si es posible que se pueda tomar una decisión de este tipo en la Junta de Gobierno.

La Secretaria responde que, dado que en ella están representados todos los partidos políticos municipales, es posible llegar a un acuerdo al respecto.

En consecuencia, todos los corporativos acuerdan adelantar el próximo Pleno ordinario al 28 de noviembre.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la sesión a las ocho y diez horas, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, Secretaria del Ayuntamiento Urnieta, doy fe.

Idoia Arévalo Benito, Idazkaria / Secretaria.

ESK0674bf32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0011

San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D

943 008 000

943 008 037

urniakoudala@urnieta.eus

urnieta.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU674bfb32-76b5-4e35-82f5-c95c1571c374**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210>